

El cuerpo central consta de tres grandes apartados, dedicados a la Toponimia Mayor (núcleos de población), Toponimia Menor (parajes rurales), y *oicónimos* o nombres de casas. Les precede una relación de sufijos y posposiciones usuales en las denominaciones de la comarca. Los datos aportados sobre el sufijo *-baita* corrigen las opiniones de Azkue, Caro Baroja y otros sobre su contenido y ámbito en la comarca del Bidasoa.

En los apartados dedicados a la toponimia, se sigue un orden alfabético por poblaciones y, dentro de cada una, de topónimos, haciéndose constar las variantes escritas recogidas «desde la Edad Media (DOC.), la pronunciación popular común entre los vecinos (PRON.POP.), la referencia para su localización o ubicación cartográfica (UB.CART.), el código de catalogación (COD. GEOG.). Siguen el comentario lingüístico de cada voz (COM.LING.) analizando los elementos componentes, labor en la que extrema la prudencia y la objetividad, datos históricos sobre el espacio denominado (HIST.) y su descripción (DESCR.).

Con un esquema parecido aborda la parte dedicada a oicónimos, que no se limita a ofrecer un listado de nombres. Conocida la vinculación existencial dada en el País Vasco entre la casa y su propietario, cargadas de connotaciones de toda índole, sociales, familiares, económicas y religiosas, su nombre se ha identificado frecuentemente con el cabeza de la familia propietaria, hasta el punto de ser adoptado como apellido personal y familiar.

Reparar la onomástica rural y urbana (casas) es conectar con un pasado remotísimo y a la vez vivo, de campos cultivados, incluso con viñedo (*ardantzea* en Doneztebe), vegas (*landa*), bosques (*ohiana*), castaños (*gaztaindegi*), manzanales (*sagardi*), y la industria tradicional representada por los *errotas*, *tellerías*, *dolares* *edo tolaretea*. Sorprende descubrir entre las casas de Ituren una *Tuteranea*.

Resulta extraño que un estudio de estas características no haya sido publicado en la colección "Onomasticon Vasconiae" de Euskaltzaindia, que viene recogiendo trabajos similares de municipios navarros y guipuzcoanos.

José María Jimeno Jurío



LEKUONA, Juan Mari
Ibilaldia = Itinerario (1950-1990).

Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea = Universidad del País Vasco. 1996, 426 orld.

ISBN: 84-7585-785-X

Lekuona, olerkari ezagunak, opari on bat luzatu digu euskaldunoi, bere poesiaren antología ezezik, sorkuntza poetikoaren hurbileko ikuspegi bat eskainiz. J.M. Lekuona, gerraosteko olerkarien belaunaldia ondoren, poesia berriaren atarian kokatzen da, bere produzioa,

alde batzuetatik, zedarri ere gertatzen dela. Aintzinako kantu zaharren oihartzun sendo gisa, bere estetika poetikoak gaurkotasuna orekaz finkatzen du, ze beti izan zaio Lekuonari gogokoa azalpen modernoetan ere tradizioaren ildoak kontutan ukaitea. *Ilargiaren eskolan* (1979) liburuari hitzaurrea egiterakoan honako hitzak idazten genituen: "Materiaren itsaso sakonean sarturik, mundu sinboliko jori bat mamitzen du poetak (lurra, sua eta eguratsaren balentziak), telurismo sujerigarrian kreatuz. Hori guztia sinbolismoaren uhain gozoetan dabil nolabait" (9 or.).

Euskal Unibertsitateak argitaratu duen liburuki mardulean, poetaren sorkuntza nagusien ezezik, garaiko beste idazleen iritziak eta soegite kritikoak luzatzen zaizkigu, halanola, X. Lete, A. Lertxundi, J.A. Arrieta, J. Kortazar, P. Ezkiaga eta beste batzuen lanak.

Lekuonaren poesian guretzat, barneratze etengabe baten ondoan, giza historia baten sakontasuna dago –existentziaren zertzeladetan emana–, eta ederraren aitzinean sorturiko ekintza sakona, beti bihotzetik darion egia –edergailuen jantziak gehiegi ere bilatu gabe– astiro jalgiz. Poesia esentziala eman digu anitzetan Lekuonak –edergailuetatik bilustua–, eta, azkeneko bere sorkuntzak, batez ere, kosmoaren eta inguruko formen funtsetatik sorturiko ederdura mamitzera lerratu gaitu. Lekuonaren estetika giza-egitatearen gogoeta da, egitate horretan datualtasun historikoari ez ezik, eder-ingurumariari bere garrantzia egotziz. Lekuonak, Arestiren kasuan ez bezala, ez zuen etendura bat egin Euskal Herri konfesional batekin, baina, etena ez eginarren, kristau fedeak bere iturrietan dituen kate kosmologikoak, unibertsalak –ederrari hain atxikiak– guri isladatzen jakin du. Bere poesiarren alde handi bat gizonaren problematika aurkitzea izan da, eta gizatasuna estetika berri baten aldartetatik abordatzea. Gaztaroko lizardianismoa gaindituz, sakontasuna ematen dio olde poetikoari giza arazoak –munduaren ikuspegia, malura, samina, kontingentzia– alde originaletatik ukituz.

Herriaren kutsu formaletik hurbil –tradizioaren ildoak asko maite izan arren– Lekuona ez da poeta etnologista, ez eta kulturalista izan, hats unibertsala duen horietakoa baino, bere ederraren muinean giza arazoez gain (bakardadea, malura, gaizkiaren presentzia) forma primitiboen (*mintzoa, eskua, jestua, irudia*) gogoeta sakona dagoela, batez ere, 1.979 ondorengo sorkuntzan.

Hurbilagotik behatuta, *Muga beroak* (1966) liburukian lehen produzioak eskaini zizkigun. Estilo nabarreko poesia solteak (*ama, goizargi, ubel...*) bertan. *Minduru gaur* delakoan nabaria da poetaren ardura inguruko munduaren dolore eta egitate nabarraz. Poesia giza dimentsioz betea azaltzen da; protesta ere izateaz gain, egitura sakona du mintzo landu baten ildotan. Mundu kosmikoa eta barne-esperientzia lotuta bertan, theilardismo baten kutsuak ahortzi gabe (eta hemen irakurleak utziko al dit nire *Urdin eta Burni* (1965) poema-liburua aipatzea, ildo haietatik, nolabait, ordurako ibilia bainintzen). Esperientzia eta interiorizazio-prozesu bat nabarmen olerkien andanan (adibidez, *Bihotza* eta *Ludia nigan* poemetan), eta sua, ura, lurra, airea gisako arketipoei behaturik eraikuntza estetiko aproposa egiten du.

Oihu ilunak espiralean poema nagusia 1979 urtean argitaraturiko *Ilargiaren eskolan* liburukikoa da. Poemategiari hitzaurrea guk gerok egin genion. Bertan giza-soinaren behaketa sakona –mintzo beroz atondua–. Poemek hiru idazketa dituzte, espiralean emanez, *Esku, Ile-adats, Haragizko estalua...* Hona zer nion orduan poema haietaz: "Lekuonaren estetika-mundua ispilu prismadun batetan bezala ematen da, hau da, era askotara, plano askotara, alde askotara. Nire ustetan metodo estetiko honek ba du bere oparotasuna kreakuntzan, eta bereziki euskararen alorrean. Poetak elemendu hautatuaren alderdi eta xokoak

maisuki ukitzen ditu, batez ere, puzten eta goratzen doalarik, errealistotik surrealismora, sinbolismo mantso baten bidez pasatuz" (10 or.).

Surrealismo apur batez igurtzita, aspaldidaniko sinbolismoan poetak konbinaketa ausartak, hitzari irtenbide estetiko berriak atereaz, lortzen ditu, giza-soina komunikazio sakonen ardatz bilakatuz. *Mimodramak eta ikonoak* (1990) delakoan tentsio estetikoak areagotzen da, protogenesiak –egitura aintzinakoen eta iruditeriaren lehen mezuak– artoski bilatzen baititu. Ederraren bilakuntza arkitektura handi baten gisa ematen zaigu, kulturaren aro hedatuenak korrituz. Irudi-multzoek, protoera estetikoek, estilizazio funtsezkoek –poemario handi batean kateatuta– zerbait nabarra, antropologikoa (batez ere, ikonologiaren aldetik) eskaintzen digu. Errealitatearen betarte nabarrak –aldaera formalak– erakusten dizkigu poetak, nahiz lehendik ere tamalez– utzia zuen poesia neurtu baten hesitik kanpo. Jestuak eta bere lekutze estetikoak euskararen arrobian sortuak dira. Erritmoari dagokionez, gure ustetan, liburu honek baditu halako zaildura bortxatuak –gehiegizkoak– aurreko poesien orekak saihesten dituenak, edo eta problematikoak egiten direnak. Erritmo ezkutukoa, batzutan, gaitzegia bihurtzen da... Gusturago irakurriko genituen poemak erritmo gardenago batean. Erritmoa eman daiteke halako herstura gabe, eta lekukoa da hortan gure hizkuntzaren tradizioa –oralitatearen nabartasun gozoa–. Liburuaren balioa irudien– eta metaforen– trataeran estimatzen dugu, eta ez hainbeste erritmo ezkutuko alde hiper-trinkotu horretan. Txirogarritzat jotzen dugu euskal poeta gehienek puntuaren eta neurriaren ildo aheratsa –azken sorkuntzan– sistematikoki baztertzea. Bertsolaritzan hain funtsezkoa dena, zergatik ez olerkigintzan? Neurria eta puntuaren errekurtsoak baliagarri dira, orobat, estetika berrian, noski, iruditeria eta temario gaurkotu baten oldetan... Alde hau egungo poesia modernoaren erosokeria merkeetako bat dela, deritzogu. Euskarak inguruko erdarek ez dituzten erraztasunak dituzte punturako. Zergatik arbuiatu, formalki, hain baliapaide bikaina den zerbait?

Lekuonak gehienbat hats luzeko poemarioak egin dizkigu, segida luzekoak, eta edertasuna irtenbide berrietara ekarri digu. Garai batek: o poesia sozialaren prosaismoa gaindituz, euskal poesia ur sakonagoetara –existentziaren, eta batez ere arketipo eta ikonoen, ikuspegi fiantsezkoa– bideratu digu. Oteiza eta Txillidaren estetikak ere izan ditu bere ukituak J.M. Lekuonaren hizkuntzan, trataera batzuk besteak baino gehiago landuz. Lekuonak misterioa, ezkutukia, egitate kosmologikoaren aurpegi nabarrak, irudien aniztasuna atzematen erakutsi digu, eta poetak on diren guztiek bezala, ederra sakonkiago dastatzen lagundu digu.

Luis Mari Mujika